

BILBAO EKINTZA EPEL

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat oposizio-lehiaketako sistemaren bidez betetzeko behin bakarrik deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu bereziaren **lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioa**.

Arlo Juridikoko eta Kontratazioko teknikari izateko lanpostu bat (euskarazko nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin) jabetzan betetzeko deitu den enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesu berezia epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu zuen maiatzaren 24an egindako bileran:

Lehenengoa.- Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta hautagaiek aurkeztutako eskabideak aztertu ondoren, zera xedatu da:

- Onestea **Nagore Olabarria Santobeñak** 1. ariketaren lehen zatian ondo erantzundako erantzun-kopuruari buruz egindako erreklamazioa. Erantzun-orria berrikusi ondoren, 60 dira zuzenak; beraz, 1. ariketaren lehen zatian lortutako puntuazioa 24 puntukoa da.
- Emandako gainerako behin-behineko kalifikazioak berretsi eta behin betikotzat jo dira

Bigarrena.- Oposizioaren LEHENENGO ARIKETAN GAI izan diren izangaiek lortutako behin betiko kalifikazioa onestea eta jendaurrean jartzea, deialdiaren oinarrietan jaso diren ariketako probak gainditu dituztelako. Iragarki honi erantsi zaio zerrenda, eta baztertu egin dira egindako probaren batean EZ GAI izan diren pertsonak.

Hirugarrena.- Lehenengo ariketan GAI izan diren pertsonen **dei egiten zaie** Oposizio Faseko Bigarren Ariketa (kasu praktikoa), derrigorrezkoa eta baztertzaila dena, egiteko, jarraian adierazitako egun, ordu eta lekuan; NANA eta idazteko tresnak dituztela etorri beharko dira:

Eguna: **2024ko ekainaren 18a, asteartea**

Ordua: **11:45ean**

Lekua: **BILBAO ARENA Kirol Jauregia (Club Arena aretoa)**, Askatasuna etorbideko 13. zenbakian (Miribilla) 48003 Bilbon.

Laugarrena.- Lehenengo ariketan GAI diren hautagaiei bigarren ariketaren (kasu praktikoa) alderdi hauen berri ematen zaie:

- a) Kasu praktikoa bat idatziz garatu beharko da gehienez ere **bi ordutan**. Epaimahaiak proposatutako bi kasuen artean bat aukeratu beharko da ariketari ekin aurretik.
- b) Gehienez ere 20 puntu emango dira, eta gutxienez 8 puntu lortu beharko dira gainditzeko.
- c) Zuzenketa anonimoa izango da, pliken sistemaren bidez, eta ariketa kalifikatu ondoren identifikatuko dira izangaiak.
- d) Bigarren ariketa zuzentzeko eta puntuatzeko irizpideak laster argitaratuko dira, ariketa egin aurretik, hautagai guztiek ezagutu ditzaten.


Bosgarrena.- Lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioan GAI izan diren eta euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna ez duten hautagaiei jakinarazten zaie zuzendu egin dela Bizkaiko IVAPen 2024ko ekainaren 1etik 15erako deialdi bateratua, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko hirugarren ariketa (euskara-proba) derrigorrezkoa eta baztertzaila egiteko.

Aurreikusitakoaren arabera, Arabako IVAPekin deialdi bateratua egingo da, 2024ko ekainaren 16tik uztailaren 15era bitartean. Ariketak egiteko eguna, ordua eta tokia [Bilbao Ekintzako OPEM plataforman](#) argitaratuko dira.

Seigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Bilbao Ekintzako presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 121. eta 123. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bilbon, 2024ko maiatzaren 24an

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE



Lehenengo ariketaren behin betiko kalifikazioak

EXPTE. BE 2022-EST-0005 ZUZENBIDEKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARIA TÉCNICO/A JURÍDICO Y CONTRATACIÓN							
NAN/DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo atala Primera parte (24 pt)	Bigarren atala Segunda parte (16 pt) Min.: 6,4 pt	Guztira Total (40 pt) Min.: 16	
*60***06	BILBAO	FERNANDEZ	OIHANE	23,36	6,80	30,16	GAI/ APTO
*066*8**	BIKANDI	IRAZABAL	CRISTINA	18,25	3,25	21,50	EZ GAI/ NO APTO
*6***385	ARPON	SALAZAR	MAIDER	22,72	6,90	29,62	GAI/ APTO
***8*297	BARRAGAN	PEREZ	TAMARA	19,36	3,60	22,96	EZ GAI/ NO APTO
*89***42	ZOZAJA	BARRENA	AINHOA	11,87	NP	11,87	EZ GAI/ NO APTO
*888*9**	OLABARRIA	SANTOBEÑA	NAGORE	24,00	9,60	33,60	GAI/ APTO
***6*939	ARLUCEA	MARQUINEZ	LEIRE	16,01	4,15	20,16	EZ GAI/ NO APTO
*27***20	SANCHEZ	MARTINEZ	NEKANE	21,60	2,55	24,15	EZ GAI/ NO APTO
*0***366	IBARRONDO	MONTEJO	JON	22,08	3,95	26,03	EZ GAI/ NO APTO
***5*907	LLAMOSAS	MARQUES	MARIA	18,56	2,35	20,91	EZ GAI/ NO APTO
***3*631	DEL TIO	GONZALEZ	ANA ISABEL	9,30	2,20	11,50	EZ GAI/ NO APTO
***9*833	BERASATEGI	SAEZ DE CASTILLO	ITXASO	16,34	2,15	18,49	EZ GAI/ NO APTO
***6*163	UBEDA	VILLULLAS	VANESA	23,36	2,60	25,96	EZ GAI/ NO APTO
*904*5**	IBARRA	SAINZ	LEIRE	20,33	2,60	22,93	EZ GAI/ NO APTO
*610*8**	IRASTORTZA	SANTXO	PERU	24,00	7,85	31,85	GAI/ APTO
***5*602	PEREZ	JIMENEZ	MARINA	17,45	6,45	23,90	GAI/ APTO
*6***366	IRASTORZA	GOMEZ	LEIRE	21,60	8,60	30,20	GAI/ APTO
*8***319	GARCIA	MARTINEZ	IVAN	22,88	3,55	26,43	EZ GAI/ NO APTO
*1***523	VALVERDE	DIEZ	PAULA	21,12	2,00	23,12	EZ GAI/ NO APTO
***2*026	OTAOLA	URQUIJO	ALMUDENA	20,17	6,65	26,82	GAI/ APTO
*2***057	PARRA	ARETI	ESTIBALIZ	20,00	6,40	26,40	GAI/ APTO
*88***03	MARAÑON	MUÑOZ	ALEXANDER	22,72	4,30	27,02	EZ GAI/ NO APTO
*900*9**	GIRON	BARREÑADA	AROA	18,41	1,55	19,96	EZ GAI/ NO APTO
*91***24	ALVAREZ	LAISECA	ADRIAN	20,81	3,30	24,11	EZ GAI/ NO APTO